

Elikadura burujabetza modan dago, milioika nekazari ikusezinak ez



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Nahasketa berezia osatzen zuten apirilaren 24tik 26ra *Elikadura 21* biltzarrerako Gasteizko Europa zentrorra mundu osotik etorritako baserriar, unibertsitario eta mugimendu sozialetako kideek. Aztergai zeuzkaten *Elikaduraren etorkizuna eta nekazaritzaren erronkak XXI. menderako*. Eztabaiden muinean, elikadura burujabetza: nekazari txikien Via Campesinak 1996an sorturik, XXI. mendeko krisitzarraren ostean eskuinak ere bereganatu nahiko lukeen kontzeptua.



Gasteizko *Elikadura 21*en antolatzaileei begiratzeko badiogu, alde batetik dago Etxalde mugimendua, loturik dagoena EHNE Bizkaiari eta honen bidez Via Campesina mundu mailakoari; eta bestetik Hagako ISS Institute for Social Studies institutua, zeinak sustatzen baitu ICAS Nekazaritzako Ikerketa Kritikoen Institutua.

Laguntzaileen artean agertzen diren hainbat erakunde publiko, fundazio eta Gobernu Kanpoko Erakundeen artean bat nabarmentzekotan, Transnational Institute, buru ezagunen artean daukana Susan George, globalizazio neoliberalari buruzko ikerketa eta borroketan txiki ezaguna den emakumea: Baionako armagabetze herritarren ospakizuneari ingelesezko agiria irakurri zuenak ireki zuen Gasteizko biltzarra ere.

Elikaduraren etorkizuna eta nekazaritzaren erronkak XXI menderako tituluaren pean, egitarauak sei multzo mamiatsu zeuzkan. Kapitalismoa, klasea, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. Klima aldaketa eta konbergentziak. Garapen-ereduak kapitalen, ondasunen eta jendearen fluxuen testuinguruan. Ekoizpen bideetarako irisgarritasuna eta haien kontrola. Kontsumoa, osasuna, nutrizioa eta elikadura eskubidea. Eta elikadura burujabetzarako mugimenduak.

Biltzarraren lehenbiziko jardunalditik kide askok nabarmendu du "elikadura burujabetza" neoliberalen eskuetatik libre edukitzeko beharra. Manitobako

(Kanada) Unibertsitatetik etorritako Anette Desmarais irakasle eta militante beteranoak kontatu du nola sortu eta zabaldu zuen 1996an kontzeptua Via Campesina mugimendu orduan gazteak. Geroztik, elikadura burujabetza txertatu da mugimendu sozial guztietan, aipatu eta barneratu dute beren erresistentzia ereduetan, eta mundu akademikoak bibliografia zabala eskaini dio ikerlan ugariarekin.

Hari beretik tiraka zabaldu ziren gero 'Energia Burujabetasuna', 'Hazien Burujabetza' eta beste, tematika berriak sortuz eta zaharretan txertatuz. "Azkenean paradigma oso bat bihurtu da elikadura burujabetasuna", esan du Desmaraisek. "Nekazarietako sortutako ideia horrek, gainera, protagonismoa hartu du klimaren aldaketaren ondorioak denen begien aurrean azaldu direnean".

Orain, aldiz, arrakasta arrisku bilakatu zaio ideia berrizaleari. Raj Patel asiarratik irakasle ingelesarentzat, gaur Indian agintzen duen edozein agintari nazionalistak lotzen du elikadura burujabetza India -edo Le Penen kasuan Frantzia, berdin Trumpen Amerika- "berriro herrialde handi" bihurtzeko asmoarekin. Krisi ekonomikoarekin azaleratu diren globalizazioak jendeetan eragindako zauriak, berriro indarrean datoz nazionalismoak eta protekzionismoa. Elikadura burujabetzarekin ere, neoliberalak kapaz dira beren logikaren kontra sortutako kontzeptua hartu eta erabiltzeko, manipula-

tzeko, merkatu kapitalistetan gertatzen dena hobeto ezkutatzeko herritarren begietatik.

Paul Nicholson euskaldunak, Via Campesinako lider erreferentzialetakoa ere badenak, garden utzi nahi izan du elikadura burujabetza aldarrikatzean herriaren eskubidea dela aipatzen, ez herri bateko merkatuen kontrola bertako elite boteretsuei ematea. Eta, bigarrenek, herri guztientzako dela eskubidea, alegia, ez elikadura burujabetzaren izenean lekuko merkatua inportazioetatik babestu eta aldi berean auzoko herrialdeetako baserriar txikiak itotzeko agro-esportazioak sustatzeko.

Hain ugariak, hain ikusezinak

Biltzarra irekitzeko saioan egotekoa zen Mixel Berhokoirigoin, euskal nekazariaren artean ezagunena. Ez zuen, ordea, Gasteizeraino hurbiltzerik izan, ETaren desarmatzeko mugimendu herritarrean egindako lanaren ordainetan Parisko epaile batek Frantziatik irteera eragotzi diolako.

Berhokok bideoz emandako hitzaldian bere estilo didaktiko ezagunean laburbildu zuen elikadura burujabetzaren funtsa, entzuleen irudimena lanean jarritz. "Munduko mapa bat egin dezakegu azalduz non diren jende gogotsuak eta non jende ondo aseak. Gero egiten dugu beste mapa bat gure planetaren lurra klasifikatuz beren emankortasunaren arabera, hobeak eta txarragoak. Pentsa liteke bi mapek berdintsuak beharko lu-



Etxalderen 'Elikadura 21' webgunetik hartutako argazkian, apirilaren 25eko saio nagusietako bat. Urrunenetik hasita, Harriet Friedman (Torontoko unibertsitatea), Mikel Hiribarren (ELB), Susan George (Transnational Institute), Valter Israel da Silva (Brasilgo Nekazari Txikiak), Raj Patel (Texasko unibertsitatea, hizketan), Raul Delgado Wise (Zacatecaseko unibertsitatea) eta Yan Hairong (Hong Kongeko unibertsitatea). Da Silva bera da salatzen duen ikusezintasunaren adibidea: nekazaritzatik bizi den arren, Brasilgo estatistiketan ez da agertzen... bere etxaldea estandar ofizialetarako txikiagia delako.

ketela, gaizkien elikatua den jendea bizi beharko lukeela lur txarrenak diren eremuetan. Baina ez da horrela gehienetan, lurrik onenak diren lekuetan askotan jendea goseak bizi da”.

Gaurko elikadura sistemaren disfunczio hori eta beste batzuk –zergatik dauka Europak esnea soberan eta ardi haragia faltan?...– erabaki eta plangintza politikoeekin daukate zerikusi zuzena, eta horiek aldatzen saiatzen dira Via Campesinak biltzen dituen nekazariak.

Agroekologian eta lekuko nekazari-tzan borrokatzen direnei galdera sorta ere laga zien Berhokoirigoinek. Munduan jendea gero eta gehiago hiri handi eta megapolietan bizi denez, nola elikatu jende horiek? Agroekologiaz gain nola antolatu megapoliak asetzeko agro-industria eta agro-distribuzioa? Produktuen prezioetan, nola uztartu

laborarientzako duinak eta aldi berean hiritar ez aberatsentzako eskuragarriak izatea? Eta nola antolatu teknika eta teknologia berriekiko harremanak?

Baina arazo larri bat dute munduko nekazariak: milaka milioi izanagatik eta gainerako mundutarren gosea asetzeko lan egin arren, ikusezinak dira. Ikusezin bihurtu dituzte. Biltzarrean entzun dira inbisibilitate horren aspaldiko eta gaurko ezaugarri asko. Valter Israel da Silva baserritar txiki brasildarrak grafikoki erakutsi zuen nola administrazioek estatistikak ere antolatuta dauzkaten laborarien jardueraren zati handiena inon ager ez zedin, agro-industriari lotuak ez izan arren mundua elikatzeko lanik gehien egiten dutenena, alegia.

Hein batean ikusgarritasuna berreskuratu die baserritarrei Via Campesinak elikadura burujabetzaren inguruan ha-

markadotan lortutako aliantzekin: Gobernuz Kanpoko Erakundeekin, gizarte mugimenduekin, mundu akademikoarekin, sindikatuekin... Baina kapitalismo neoliberalak ere inoiz baino ofentsiba handiagoa darama nekazari txikien kontra, merkatuak, ongariak eta haziak kontrolatu ostean, orain lurraldea bera kendu nahi zaie herritarrei eta zehazki nekazariari. Peter Rosset irakasleak esan bezala, kapitalaren ofentsiba berrian jokoan dago lurraldea bere osotasunean, lur, jende, ur, haziak eta historia barne.

Gasteizen entzun ziren Txinako adibideak, Indiakoak, Bizkaikoak, bazter guztietakoak; eta denetan lotzen ziren klimaren krisia, elikadura, krisi ekonomikoa, zorpetze publiko eta pribatua, kontsumoa, errepresioa, desjabetzea. Beldurrak eta itxaropenak, Monsanto eta Zero Aurrekontuko Laborantza.■





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




50 urtez elkarrekin